

ZER DA ETXEBIZITZA DUIN ETA EGOKIA LEGEZ OKUPATZEKO ESKUBIDE SUBJEKTIBOA?

Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritako auzotasun administratiboa duen pertsona orok eskubidea du etxebizitza duin, egoki eta irisgarria izateko.

Eskubide hori ondo bete liteke etxebizitza babestua edo bizitoki babestua alokatzeko aukera emanda, baita etxebizitza librea alokatuta ere, etxebizitza librearen bat eskueran badago bitartekaritza-programaren baten ondorioz edo beste arrazoiren batengatik; betiere, kasu bakoitzean egoki den errenta edo kanona ezarrita.

Inongo etxebizitzarik edo bizitokirik ez badago eskuratzeko moduan, eskubide hori diruaren bitartez gauzatzeko aukera ere izango da.